

Abarrak

JON TORNER

1917ko iraultza osteko garai surrealista

Chagall en Rusia. Joann Sfar.

451 argialetxea (2011).

128 orrialde, koloretan. (Kolorea: Brigitte Findakly)



JOANN SFAR Frantziak azken hamarkadetan eman duen komikigilerik garrantzitsuenetakoa da irakurle askorentzat, sortzaile emankor eta iradokitzailea. Gezurrik ez dizuet esango: *Chagall en Rusia* komikiarekin –Zer arraiogatik deitzen diote liburu honi ere *nobela grafikoa?*– deskubritu dut nik autore frantziarra.

Marrazkien trazu soil erabat definitu gabeek,

Brigitte Findakly-ren kolore biziak eta kaligrafia narras antzekoak eraman ninduten liburutegiko komikien artetik –zorionez geroz eta gehiago aurki daitezke– Joann Sfar-en hau aukeratzera. Lehen begiratuan behintzat bazuen zerbait berezia, azkenaldian irakurritudunetarik desberdin egiten zuena. Horrek ez zuen ezinbestean esan nahi hobeia izango zenik, edo atseginez irakurriko nuenik. Hala gertatu da, ordea. Aurreikuspenak gainditu ditu komikiak, eta artista frantziarraren urratsei zorrotzago heltzeko ataka erakargarrian jarri nau.

1917ko iraultza osteko Errusian kokatua, Marc Chagall pintore judutarraren (Vitebsk, Bielorrusia, 1887-Saint Paul de Vence, Frantzia, 1985) figurari



heldu dio Sfar-ek, obra artistikoari baino, haren bizitzari. Pintore surrealista zen Chagall, eta komiki surrealista da esku artean daukaguna. Belaunera arteko sakonera duen errekan oinez ibiltzeko gai den Jesukristo funanbulista, ametsetan bizi den biolin-jole sozialista, zaldiei zintzurak ebakitzen dizkien harakina, gizonak akabatu eta emakumeak bortxatzen besterik ez dakiten soldadu kosakoak, aingeruz janzten diren emagalduek... Errealitate gordina islatzen du komikiak, baina nolabaiteko alaitasuna dario, musikal-tasun bitxi bat, Brigitte Findakly-ren koloreek areagotzen dutena. Zelda edo irudien marko guztiak neurri berekoak dira, igual-igualak denak, baina istorioak hainbeste ezuste gordetzen du, uniformetasun hori hankaz gora erortzen dela ia orri bakoitzean.

Chagall pintoreak eta Sfar komikigileak bat egiten dute liburuan: marrazteko era, koloreen erabilera, ikonografia judutarra... eta, ororen gainetik, bi artistok gidari duten surrealismo ederra.



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu
garai batean
egiten ziren ogiak,
lehengo osagai
eta teknikekin

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia
bihurtu baitugu
denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074